

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE

ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONES

VIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Banatu dituzte LaborESO programaren bigarren edizioko partaideentzako diplomak

Ekimenari esker, Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako 159 ikaslek lan arloan lehen esperientzia bizi ahal izan dute

Jueves, 26 de mayo de 2011

Alberto Catalán jarduneko Hezkuntza kontseilaria, gaur, Hezkuntza Departamentuko ekitaldien aretoan egin duten LaborESO programaren bigarren edizioko ikasle eta enpresa partaideei diplomak banatzeko ekitaldiaren buru izan da. Ekimenaren xedea curriculum anitzak eratzeko eskolak hartzen ari diren Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ikasleei lan munduan lehen esperientzia bizi ahal izatea da.



Catalán eta Aranz programako bi partaide eta tutoreekin

Bigarren edizioan, Nafarroako hamalau ikastetxe publikotako 159 ikaslek parte hartu dute, aurreko urtean baino % 78 gehiagok. Hamabost egunean, ekimenen lankidetzan aritu diren 153 enpresatariko batean hainbat jarduera burutu dituzte.

Ekitaldian izan dira Teresa Aranz Antolamendu Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusia eta Iruñerriko institutu eta enpresetako partaideak: Iruñeko Basoko, Padre Moret-Irubide, Plaza de la Cruz eta Eunete BHIak eta Noingo Elortzibar DBHI.

Gainerako partaideak institutu hauetakoak izan dira: Azagrako Reyno de Navarra, Zarakasteluko Valle del Aragón, Lizarrako Tierra Estella, Leitzako Amazabal, Lodosako Pablo Sarasate, Martzillako Marqués de Villena, Mendabiako Joaquín Romera, Tafallako Sancho III el Mayor eta Vianako Del Camino. Horiek Leitzan, Mendabian, Tafallan eta Vianan egingo diren ekitaldietan jasoko dituzte haien diplomak.



Programako partaideen taldeko argazkia

Programaren nondik norakoak

LaborESOk derrigorrezko hezkuntzako azken ikasturteko ikasleei, bi

astez, enpresa baten funtzionamendua ezagutzeko aukera ematen die. Bi aste horietan, ikasleak ez dira eskolara joaten, lantegira baino, eta han enpresako lan ordutegia bete eta lana egiten dute; bitartean, hango enplegatu batek ikasleek egiten dutena gainbegiratzen du, enpresaren eta ikastetxearen artean adostutako hitzarmenaren arabera.

Ez da praktika bidezko prestakuntza, edo LHko heziketa zikloetako ikasleek lantegietan jasotzen duten prestakuntzaren modukoa. Iraupena, irakasten dena edo jarduera mota ez dira aipatutako kasua bezalakoak, izan ere, ikasleak bi astez joaten dira lantegira, derrigorrezkoa da eta jarduerak ez dira espezializatuak. Halaber, kontuan hartu beharrekoa da, ikasleek enpresako jardueretan laguntzen dutela egin dezaketenaren arabera, ez baitaude langileen zerrendan.

Ekimenaren helburua ikasleei, DBH amaitzean, haien etorkizun akademiko eta profesionalarekin loturiko erabakiak hartzeko prozesua erraztea da. Horrez gain, ikasleen heziketa osoan laguntzea da asmoa, baita enpresa baten eta beraien egituraren antolaketa, trebetasunak, gaitasunak eta interesak ezagutzea ere. Mota horretako programak oso ohikoak izaten dira herrialde anglosaxoietan, hala nola Erresuma Batuan, Irlandan edo Estatu Batuetan. Beste autonomia Erkidego batzuetan ere halako programak gauzatzen dituzte.